

[IRRIBARREZ DAGIRI SORKALDEA]

Iribarrez dagiri sorkaldea: [I]
Odeiak-zuri gorri ta urrea.
Pioka txoritxuak. Argi mea.
Su ta leiarrezkoa errekea.
Lurrats nabar-urdiña. Otz emea.
Sugaitz adarretatik intz tantea.
Izar malkoz aramu gau-sarea.
Lora mota bakoitzan kapelea
Pitxi banan gordailu orbangea:
Lilia, zitoria, larrosea...
Itsas-aldetik legun aize xea
Landarakaz olgetan, saramea.
Poz-negarrez keixa ta masustea.

Aletan indurritxu langillea;
Eztitan jainkolloa ta erlea.
Aldapa ertzez-ertze artaldea,
Atzetik geldi aski agurea.
Basora auntzak, beiak, aberea...

Beea,
Murrusea,
Arrantzea,

Ausia, deadarra, zaratea...
Tximini bakoitzetik naro kea
Goruntz, kizkur, biurri, zurizkea.
Kukurrukua, ollo-karkaxea.

Egalik egal txakur zar gosea.
Esnedun bat, argin bi, abadea,
Iru lau lugin, idi ta goldea.
Iturrira kantari neskamea.

Urirantza barazki saltzallea
Errime txit, buruan otsarea.
Kanpantorrean din-dan ioalea...

Basetxea,
Kurtzea,
Eleizea,

Meza Deuna, txiliña, altarea,
Jaunartzera ioranez arimea...

Artean zeruaren erditzea,
Sorkalde oriaren urratzea.
Eder eguzkiaren sort-ogea...
Atera da izarren erregea!...
Orra eguzki bizi goizalea.
Erlantz zolia; ñirñir da ortzea.
Txir-txir-txir kirkillaren arlotea.
Alai irribarrezka etxetea,

Larrea,
Zingerea,
Lurbirea.

Oi, ene baserriko goizaldea!... [II]